

Alex Txikonek Nuptse eta Lhotseko tontorrek egin gura ditu

14. orrialdea

Bola denporaldia aurrera doa

Bola denporaldia hasita dago honezkero eta hiru txapelketa jokatuko dira: Komarkala, Bizkaiko Txapelketea eta Euskadiko Txapelketea. Komarkalean Arratiako lau talde dagoz: Artaun (Dima); Lemoa, Oba (Dima) eta San Kristobal (Igorre). Komarkala martiaren 2an hasi zan eta maiatzean amaituko da. Zapatuetan jokatuten da lauretatik aurrera. 15. orrialdea



Zeanuri-Dima herri kirol desafioa Diman aprilaren 13an

14. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

183

2013ko aprilaren 2a
hamabostekaria
www.begitu.org

Arratiarrak lekukoa eskuan

Martiaren 20an Ubidetik, eta 21ean Ubide eta Arratiatik pasau zan Korrika.

BEGITUK, gurean egin eban ibilbide osoan lagundu eutsan Korrikari ehunka argazki eginez.

Sei orriko erreportajea, egun harretan bizi izan zan giroa eta arratiarrak euskereari deutsien atxikimendua ikusten da. Izan be, edade eta kolore guztietako arratiarrak alkarri emon eutsien euskerea lekukoagaz

batera egun horretan. Norbakoak, alkarreak, enpresak, komertzioak eta gazte taldeak, beste batzuen artean, erosi eben kilometroa eta lekukoa eroianaren atzetik joan ziran galapan. Lan eguna eta lan orduetan izan arren, partaidetzea handia izan zan argazkietan ikusi daiteken moduan.

8. 9. 10. 11. 12. eta 13. orrialdeak



Irati Urien eta Iraitz Sagarna Zertu Kultur Elkartearen kilometroa egiten.

LEMOA

Cementos negoziazioetan



Cementos Lemonako beharginak eta enpresek, Eusko Jauriaritzako Lan Zuzendariaren bitartekaritza-agaz negoziazioetan izan dira martian. BEGITUREN iturrien arabera, gatazka hau konponbidean egon leiten arren, aprilaren 1ean akordioa lotu barik egoan eta greban, kanpaldian eta, 194. egunean, oraindino burrukan jarraituten eben Cementoseko beharginak. 7. orrialdea

IGORRE

Memoriaren bankua

Herriaren memoria jaso eta memoriaren banku bat egin gura dau Igoerreko Udalak. Datu base bat sortuko da 1936tik 1976ra Igorren bizi izandakoen testigantzakaz eta dokumental bat egingo da ildo narratibo batez. Ilintia Ikerketa Alkarreak egingo dau ikerketea eta urtebete inguru iraungo dau. Ikertzaileen eretxian gerra eta gerraosteko Igorreko informazio giti dago hau landu daben erakundeen artxiboetan, "frontea ez zalako luzaro egon herrian". Horregaitik alkarizketak informazio iturri nagusia izango diralakoan dagoz. 5. orrialdea



ARRATIA

Publizidade aukera barriak BEGITUN

BEGITUK bere publizidade eskeintza esparru barrietara zabaldu eta gizarteak erabilten dituan euskarri barriak be kontuan hartu ditu.

Barrikuntza moduan webgunean banerra ipinteko edo promozino bideo bat eskegiteko aukerea eskeiniko dau BEGITUK hemendik aurrera. Publizidadea euskarri bitan egin ezker, %10eko deskontua aplikauko jako iragarleari. Hiru euskarriak –webgunea, bideoa eta papelezko edizinoak– kontratatetan dabenai % 20ko deskontua egingo jakie. 7. orrialdea

EGIN SALTO! Aukeratu
BIKOTXA zein
HIRUKOTXA

IGITIE

PATATA ERREAK
ESPINAKAZ BETETA

Bat: hilabete bat daroa euria egiten. Bi: lurak bi aldiz gehitxo edan jona. Hiru: gaur afaria joguna, hik eta beste hiruk. Lau: hiretzako errezeta hau.

Informazio iturria: *Sukaldaritzaren begetarianoaren etxean erraz prestatzeko*. Karmen Sobejano, 2007.

Osagaiak: 4 patata (guk orain dala gitxi erein dogu patatea, ia zelan datorren!). Kilo bat espinaka fresko. Kipula bi. Kurkuma

apur bat (edo gustuko dogun beste edozein espezia).

Patatak olioaz eta urez busti ondoren osorik erreko doguz labean, 30 minutuz eta 180 gradutan. Ondo eginda dagozan jakiteko erabili zotz bat. Ondo eginda badagoz (zorionak) labetik atera eta hozten itxiko doguz. Bitartean, espinakak garbitu eta ur irakinetan egosiko doguz 5 minutuz. Adi lapikoari!

Kipulea xehetu eta prijidu egin dogu, astiro-astiro. Espinakak gehituko deusaguz, ura kendu eta gero. Zartaginakoak bere ikutua behar dau, kurkuma apur bat

bota eta gatza emongo deusagu behatzen puntaz.

Baso erdiari trago bana emongo deusagu, eta labea bero dagoala ziurtatuko dogu.

Jarraitzeko, patatak erditik zaituko doguz eta kontuz hustuko doguz, azpikoa apurtu ez daiten (hau da zatirik gaxena, animo!). Ondoren, ateratako patata maminak eta espinaka erregosia bateratuko doguz, ondo nahastuko dogu dana eta (gustu handiz) patatak beteko doguz. Labean 10 minutuz eukiko doguz, eta mahaira.

Sukaldez gozatu eta on egin!!



TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Aprilaren 1etik 7ra

Kortazar. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.

Aprilaren 8tik 14ra

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Aprilaren 15etik 21era

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Chicote. Kareaga Goikoa 50. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriagatik): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandioarik ez dago.

Babesleak:

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



bbk



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

www.begitu.org

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Kudeatzailea: Inigo Iruarrizaga.

Erredakzino taldea: Ainhoa Duñabeitia eta Irati Urien.

Maketazinoa: Inigo Iruarrizaga.

Publizidatea: Inigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Alaia Ozerinjauregi eta Iratze Sagarna (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tirada: 6.600 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Independentzia da demokraziaren abiapuntua

Inguratzen gaituan munduaren pertzepzioa guztiz baldintzatzen dau bizi dogun herri-kulturak. Izan be, pertzibidutea fenomeno psikologikoa da, eta estimuluak bakotxaren ikuspuntutik eta esperientziatik interpretetea da. Personok estimuluak jasoten doguz, eta behin sailkatu ondoren, daukaguzan eskemen arabera interpretetan doguz, pertzibiduten doguz, ulertzen doguz.

Personak izaki sozialak gara: herri baten barruan, kultura baten barruan jaio eta hazten gara. Jaiotzean, hizkuntza baten egiten deuskue berba; modu horretan, komuniketako tresna geureganatzeaz gain, mundu ikuskera bat be geureganatzen dogu. Herri baten barruan jaio, hazi eta hilten gara, eta bertan ikasten dogu zer dagoan "ondo", zer "txarto", zer dan "normala" eta zer ez dan "normala".

Herri bat menperatuta dagoanean eta, beraz, bere ohiturak, kulturea, hizkuntzea, modu osasuntsuan transmitiduterik ez daukanean, ingurunea pertzibiduteko modua be ez da osasuntsua; eta herri zapalduaren sindromea edo kolonizatuaren sindromea sufriduten dau. Azpitik kokatzen dau bere burua, eta gaintetik ezarri joko-

zan arauetatik kanpo ezer egin ezin dala pentsetara be heldu daiteke. Arau horreetatik kanpo bizitea ezinezkoa dala pentsetan dau menperatuak, baina, hain justu, arau horreetatik urtetea da harek bizirik irauteko behar dauan baldintzea.

Fanonen arabera, ikatza baino baltzagoa dan personea zuri ikustera edota edurra baino zuriagoa dana baltz ikustera be heldu leiteke modu psikologikoan azpiratua dan baltza. Euskaldunon herria zapaldu eta desagerrarazo gura dabenak gure herritartzat hartzean doguzanean legez. Kolonizatuaren sindromea, menperatuaren pertzepzioa.

"Zuhurki beldurra, gutxiagotasun-konplexua, ikara, morrontza, etsipena, otzankeria barneratu dieten milioika pertsonen ari naiz hizketan".

Aimé Césaire, *Discours sur le colonialisme, 1950*

ASIER IPIÑAZAR EPALZA "ERRI"
ORREAGAKO KIDEA

Gurasoak hizkuntza ohiturak landuten

Pasa dan barikuan, martiak 15, eskoletako jantokian alkartu ginan 15 bat guraso eta beste horrenbeste ume, esku-lanak egiten ikasi bitartean euskeraz berba egiteko ohituran sakonduteko.

Bertaratu ginan gurasook, serpentinakaz gauza kurioso eta politik

egiten ikasi genduan, gure artean euskeraz berba eta barre egiten genduan artean. Umeak, bitartean, Zaztaparrak taldeko jagole bigaz itzel pasau eben pintetan eta pulseragin, eurek be euskeraz, normala dan moduan!

Egia da, gurasoak askoz gehiago inpliketan garala edozertan umeak tartean badira, gure umeentzako onena gura dogulako, eta zer hobe, gure umeai, gure ama hizkuntza egoera guztietan erabili eta maitatuten erakustea baino!

Hau guztiau, Igorreko Euskera Planak eta IZ Guraso Alkarteak alkarregaz antolatutako ekintza polit-dibertigari-interesgarri eta itzela izan da, eta eskertutekoa da, benetan!

Ezin izan zinala etorri? Lasai, ez da eta ekintza bakarra, ez horixe!

Apirilaren 19an eta maiatzaren 17an beste saio bi prest daukiez oingoz, orduan be gauza barriak egiteko danon artean. Animau eta zatoz!!

IRENE BILBAO

Aurrera kantuz

Udabariagaz batera puntual heldu jaku aurtengo Korrika Arratiara, arratiar guztiok bero-bero hartu dogu eta, zelan ez, Luis Iruarizaga Abesbatzak be bai.

Abesbatzakook geure kilometroa egin dogu eta hainbatek amasestuka egin be. Orduantxe konturatu gara zahartzuz goazela eta abesbatza honek be jente gaztea behar daua, luzaroan bizirik iraun dagian. Horregaitik ba, abestutea eta ondo pasetea gogoko badozuz, zabalik dozuz Luis Iruarizaga Abesbatzaren ateak. Sartu zaitetz!

Laster Udabariako Kontzertuakaz hasiko gara eta hainbat herritan abestuko dogu, besteak beste, Santurtzin, Castro Urdialesen, Igorren...

Amaitzeko, eskerrak emon behar deusueguz gure hainbeste kontzertutara etorri zarielako eta aurrerantzean BEGITUREN bidez jasoko dozuez gure barriak.

Gugaz hartu-emonetan jarri gura badozu, hona hemen bidea: iruarrizagabesbatza@gmail.com.

LUIS IRUARRIZAGA ABESBATZA

ERETXIA

JOSE MARI KORTAZAR
Arratian abade

Aita Santua eta Aste Santua

Aita Santua. Aita Santu barria edo aita santu barria. Itzela komunikabideetan sortu dauan oihartzuna. Orduak eta orduak irrati eta telebistetan. Orrialdeak egunkari eta aldizkarietan. Hamaika sarrera webgune eta blogetan. Radio Euskaditik be, Arratia non dagoan ez dakien kazetariak (handia da, gero!), itaunka ea ze eretxi daukadan. Eta ze eretxi eukiko dot ba? Urruntxo dago Erroma. Niretzat be bai. Hona lau apunte.

Lehenengo apuntea: itzela sortu dauan zaratea eta arreta. Gure BEGITUN be bai. Arratiako herrietan Aste Santuan zehar ospatuko diran 60 eleizkizunak aitatu be egiten ez dituan aldizkari batek interesa ei dauka gai honetaz. EITBn beharrean dagoan lagun batek esaten eustan: "Telebistako ordu erdi oso karua da. Erromatik irudien emisinoa debalde dan bitartean, esatari bat eta telefono dei bigaz ordubete merke-merke bete leiteke". Prezioa izango ete da arrazoi bakarra?

Bigarren apuntea: kanpotik, bazterretik dator, Hego Ameriketatik. Gure gazteak iparraldera bialtzen doguz ikasten, hegoaldeetik ekarri dabe aita santua. Esperantzazko keinu bat bada. Pobreak aitatzen ditu. Hego Ameriketarik ezinezkoa da pobreak ez ikustea. Asko dira. Larregi. Guk pobrezia ezkutuan daroagun bitartean han, ageri-agerian dago. Ona da kontuan hartzea eurak dirala munduan gehiengo. Eta euren aldeko keinuak ugari egin ditu eta egingo ditu.

Hirugarren apuntea: zalantza bat. Helder Camara Brasilgo gozainak esaten eban behin eta barriz: "Pobre bateri ogia emoten badeusat "santu" deitzean deuste. Pobre batek zergaitik ez daukan ogirik itaunduten badot "komunista" dinoste".

Kalean paseoan zoaz. Kalean kristal apurtuak ikusi eta berehala pentsau edo esaten dozu: zeozer apurtu da, bentanaren bat, botilaren bat... Munduan bizi gara. Pobreak ikusi eta profetak atoan esango dau: justizia apurtu da.

Aita Santuak alkartasunaren alde egingo dau. Argi eta garbi. Justiziaren alde egingo ete dau? Egin ete leiteke Vatikanoko palazioetan bizi izanda? Buenos Airesen egin eban lez, gotzain egoitza itxi eta pisu batera biziten joatea posible izango litzateke?

Laugarren apuntea eta azkena. Argentinako diktadoreagaz izan eban jokabidea be asko aitatu da. Hemen nori entzun, halako erantzun. Adolfo Pérez Esquivel argentinarra Bakearen Nobel Saria da. Diktadorearen kontrako ekintzaile bakezalea. Niri haren berbeak sinesgarritasuna emoten deuste. Argi esan dau Frantzisko aita santua ez zala kolaboratzaile bat izan. Martiri bat be ez, Angellelli gotzaina lez edo El Salvadorreko Oscar Romero gotzaina lez. Baina inondik be ez diktadorearen laguntzaile, medio batzuk zabaldu eben lez, nire ustez iturriak kontrastu barik.

Komunikabideen agendan desagertuko da gai hau. Aita santu barria ez da albiste izango. Ke bihurtuko da. Eta zer geratuko da? Egutegian Aste Santua be joan egingo da. Eta egun baltzak agertuko dira gorrien ordez. Eta zer geratuko da?

Xalbador pastore, profeta eta bertsolariak esaten ebanez: "Jainkoaren hurbiltasuna sumatu dauanak ezin dau harrika ibili inogaz". Hori lortuko bagendu hasia dogu adiskidetzaren espirala.

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEHIOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Galtzai



Imajinatu, irakurle, eguraldi txar baten ostean euriak, haizeak edo edurrak eginiko kalteak eta apurketak... Edo suteak eragindakoak. Ba, galtze horrexei esaten jakie galtzaiak. Galtzaiaren ondorioz, bada, gauzearen balioa gixitu edo hondatu egiten da (galtzáye, agoskatuta). Batuaz, galera berbea erabilten da gehienbat. Esate baterako, "Igaz galtzai handiak euki genduzan sikiteagaz".

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...

...BAGARA ETA IZANGO GARA

Enkainatzen
Batzen gaitu

MONDRAGON

LUMATUTEN



IDOIA LEGARRETA

Gure gorputzak,
gure ebatzia

Eta bat-batean haurdun geratuko banintz? Pre-serbatiboagaz arazoren bat izan eta hurrengo eguneko pastilleak haurdunaldia eteteko eraginik egingo ez baleusta? Eta gainera, abortatzeko aukerarik izan ez eta haurdunaldiaz aurrera egitea baino, beste urtenbiderik izango ez baneu? Noz edo noz, geure buruari egin deusaguzan itaunak dira, loa kendu eta ezinegon eragin deuskuenak. Oraina eta etorkizuna prekarioak diran tse-tuinguru honetan, haurdun geratzeak gure bizitza proiektuak, dana dalakoak dirala be, guztiz aldatu edota hankaz gora ipini daikiezalako.

Gure gorputzetan, ekonomietan, ametsetan, osasunean aldaketak sortzean ditalako, gurea izan beharko litzateke zer egin ebatztearen eskumena. Estatuak eta eleizeak, ostera, abortatzeko eskubidea mugatu gura deuskue. Gure desioak,

praktikak, plazerrak etenbarik erreguletan dituen zenbat politika eta diskurso! gure gorputzak gizarte sostenguaren arduradunak, moralidadearen zaindaria, kultur balioen transmisoreak eta humanidadearen jabetza bilakatzen dira. Baina nok ebatzen dau zer dagoan ondo eta zer ez? Zer dan etikoa eta zer ez? Akaso, adin txikikoak gara, gaitasun urrikoak, ondo eta egokiena dana ezin ebatzi ahal izateko?

Gure gorputzak, desira, proiektu, amets propioak ditue. Gure gorputzak biaje bat egitea desiau daikie, bizikleteagaz porturik altuena igon, umeak izan edo ez izan, minigonagaz joan edo guztiz tapauta. Aukera eta ebatzi ugari dagoz. Eta argi izan beharra daukagu, gure gorputzetan geuk ebatzen dogula. Eta aukera eta ebatzi horreek aurrera eroateko baliabideak bermatuta izan behar doguzala.

ZERTZEAN



SAIOA LARREA



BEGI TXINDORRA

Udabarran zerura begiratuteko joera handitzen jaku danoi be. Egunez, ze eguraldi egingo ete dauan atxakia hartuta; gauetz, izarrak ikusteko.

Horregaitik, zerua garbi egon ezkerro, aprileko gauetan ikusi daikegura ekarri dogu hona.

Planetak

Merkurio hilaren lehenengo egunetan ikusi daiteke, baina gatxa da Ekialde-Hegoekialde horizontean altura txikerra hartzean daualako eguzkia urten aurretik.

Artizarra hilaren amaieran agertuko da mendebalde-iparmendebalde horizontean eguzkia ezkutututakoan. Ariesen dago.


Jupiter gauaren lehenengo zatian ikusi daiteke mendebalderantza. Tauron dago.

Saturno, aprilaren lehenengo astean minutu batzuk baino ez da agertzen eguzkia izkututzen danean, baina aste horretatik aurrera gau osoan ikusi daiteke. Libran dago.

Meteoroak

Liriadak aprilaren 22aren inguruan ikusi daitezke, urteko aktibidaderik handiena daukie orduan eta. Ikusteko momenturik onena egunsentia baino lehentxoago da.

(Guia del cielo 2013. Cuadernos procivel-etik moldatuta)



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
hagin klinika
Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia
Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bilakaia
T. 94 631 50 39
ikagetu@agoda.es
R.P.S. 21/06

umean moda
sem
0-16
Agirre Lehendakaria, 27 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • seimoda@hotmail.com

IGORRE

Memoriaren bankua egiteko testigantzak jasoten dabil Udala



Ainara Pujana, Angel Larrea eta Aritz Arrizabalaga.

Herriaren memoria jaso eta memoriaren banku bat egin gura dau Igorreko Udalak, Igorre dan modukoa izatera zelan heldu dan azalduko dauan alkarrizketa bilduma bat osotuz. Behar hau egiteko, lau ikertzaile hasi ziran beharrean urte hasieran eta urte beteko epea daukie 1936tik 1976ra Igorren bizi izandakoaren testigantzak bideoz jasoteko.

Erredakzioa

Angel Larrea historialaria eta Ilin-tia Alkarteko presidentea, Aritz Arrizabalaga Euskal Filologian eta Antropologia Sozialean lizentziaduna, Ainara Pujana Kazetaritzan lizentziaduna eta Ibai Pujana Ikusentzunezko teknikaria eta zine zuzendaria dira memoriaren bankua egiteko enkargua jaso dabenak. Gauza bi egingo dira: datu base bat sortu eta dokumental bat egin. "Datu base bat sortzea da Udalaren helburu nagusia eta datu base hori osotuko dabe alkarrizketak eta alkarrizketatuak. Eta hortik, dokumental bat egingo da ildo narratibo batez, sasoi horreekin lantzeko" azaldu deutso BEGITURI Aritz Arrizabalagak.

"Proiektu bi egon ziran lehian, Ilin-tia Ikerketarako Alkartearena, irabazi dauana, eta Labayru Ikas-tegiarena. Gure proiektuak arlo bi aztertuko ditu: gerra eta gerros-tea, eta industrializazioa. Industrializazioagaz batera fenomeno bi egon dira ezin diranak ahaztu. Bata da Igorrera etorritakoak, ez bakarrik Espainiatik, Arratia bertatik be herri askotatik etorri ziran

eta. Bestea, andren papela industrializazioagaz batera zelan aldatu zan. Ze faktore horreekin biak sano garrantzitsuak dira egungo Igorre zelangoa dan azaltzeko" dino Angel Larreak.

Igorretarren testigantzak

Errolda hartu eta 1936tik 1976ra Igorren bizi izandako 70 urtetik gorako gizonak alkarrizketatzen hasi dira ikertzaileak. "Modu exhaustibo baten, gerra eta gerraosteko informazioa batzean gabiz. Errolda hartu eta danai alkarrizketak egiten hasi gara. Gizonak hasi gara gitxiago dagozalako eta gero egingo deutsegu alkarrizketea andrai. Gidoi batez joaten gara, baina inoz ez dakigu zer aterako dan" azaldu deutso BEGITURI Ainara Pujanak. Alkarrizke-

Testigantzea emotea gura dabenai eurekatz kontaktuan ipintea eskatzen deutsee

tatuen argazkiak, dokumentuak, diarioak eta abar aportetari balio handikoa ereisten deusie ikertzaileak, baina oraindino ez dabe holangorik topau.

"Berandu gabizala da sensazioa. Orain dala hamar urte, lekuko gehiago eta testigantzen kalitatea hobea izango zalako sensazioa daukagu, baina hau orain sortu da eta orain egiten gabiz" dinoe.

Ikertzaileen arabera, behar honen helburua dokumentazioa jasotea da, ezelango aldarrikape-nik egin barik. Dokumentazio hori artxibo digital baten gordeko da, horregaitik deitzean da memoriaren bankua, eta gero informazio guztia jentearen eskura ipiniko da. Seguru asko, Udalaren webgunean.

Artxiboetan Igorreko informazioa gitxi

Batez be gerra eta gerraostea lan-du daben erakundeen artxiboetara be jo dabe informazio bila. "Artxibo Historiko, Gerediaga alkartekoa eta Abertzaletasun museoko artxiboetan egon gara, beste batzuen artean, baina Igorreko informazio askorik ez dogu topau. Izan be, gerra sasoi populazio gitxi bizi zan hemen eta frontea be ez zan luzaro egon herrian. Banakako gauzak baino ez doguz topau" azaldu dau Arrizabalagak.

Hori dala eta, alkarrizketak iturri nagusia izango diralakoan dagoz eta testigantzea emotea gura dabenai eurekatz kontaktuan ipinteko eskatzen deutsee, udal-letxera jota edo Igorreko Udaleko webgunean agertuko dan memoriarenbankua@igorre.net helbidea erabilita.

ARRATIA

Galdakao eta Arratiako enpresak alkarlanean merkaduak zabaltzeko

Erredakzioa

Hogeta hamar enpresa eta 60 lagun inguru batu ziran Zulaibarren, eskualdeko bigarren enpresatopaketan. Helburua, enpresak alkar ezagutzea eta euren artean sinergiak sortzea izan zan, negozio posibilitateak gehitzeko.

"Holango dinamika ez dabe ekintza zuzenik izaten. Berrehun hartu-emonetatik, beharbada hamar dira produktiboak. Gaxak dira neurtzen, kuantitiboak baino, kualitatiboak diralako onurak" adierazo eban Josune Gorospe mankomunidadeko presidentea topaketearen aurkezpenean. Dana dala, diru laguntzak lortzeko balioak izan ziran Ibon Uribe Galdakao alkateak.

Eskualdeko enpresen arteko "flujua modu naturalean egiten da" Gorosperean ustean baina hori sustatzeko enpresak alkar ezagutzea ezinbestekoa da. Topaketa

honek aukera hori eskeintzen eutsen enpresari. Izan be, enpresa bakotzak bere burua aurkezteko aukerea izan eban lehenengotik, eta gero, world kafe formatuan, hartu-emon komertzialak egitea ahalbidetu zan.

Sustapen ekonomikoa bultzatzen

Parte hartu eban enpresak sektore askotakoak izan ziran: eraikuntzakoak, kimikakoak, zerbitzuetakoak eta industria arlokoak; tartean Igorren dagozan Batz eta Ormazabal. Gainera, Zeanurin, Lanbide Heziketa zentru baten egiteak "balio erantsia" emon eutsan topaketeari mankomunidadekoaren ustez.

Topaketa hau Galdakao Udala eta Arratiako Udalen Mankomunitateak antolatu eban Behar-gintzaren bitartez, eta SPRIren COMPITE programeak finantziatuko INNOVAPYME proiektuaren barruan sartzean da.



Josune Gorospe, Ibon Uribe eta Aitor Sorriketa.

ARTEA

Frackingaren kontrako mozinoa onartua

Erredakzioa

Artean frackingaren kontrako mozinoa onartu eban plenoak Bildu eta Aldatuz Plataformearen aldeko

botoakaz eta EAJ-PNVren kontrakoakaz. Honegaz, sei dira frackingaren kontrako mozinoa onartu dabenak gurean, -Artea, Dima, Igorre, Ubide, Zeanuri eta Zeberio- eta lau onartu ez dabenak.

Mozinoak "fracking ez" seinalea herrian ipinteko eskatzen eban eta onartutakoan Bilduk "fracking ez" banderolea ipini ebala udaletxeko balkoian baina hurrengo egunean desagertu egin zala salatu dau Itsaso Angoitia Bilduko zinegotziak.

FISIOTERAPIA 
Balneario Areatza
Tania Fernandez Santiago
COL. 1718
www.gruposasoibide.com Tel.: 94 657 54 50

DIMA

Mendebalde alkarteak liburu dohaintza Dimako Liburutegiari**Erredakzioa**

Dimako Udal Liburutegiak atek barrero zabaltu dituanetik ondarea osotuten jarraitzen dau. Norabide bitan dihardu beharrean: liburutegia egunero zabalik eukiten eta liburu gehiago lortuten. Liburutegia egunero zabalik eukiteko auzolanean egiteko deia egin eta 33 herriko lagun batu ziran doban lan egiteko.

Liburu gehiago lortzeako Euskal erakunde eta argitaletxeetara jo dabe. Lehen atea Euskaltzaindian jo eben eta Euskaltzaindiak doban emon eutsan argitalpen pilo. Orain Mendebalde Kultura Alkarteak beste argitalpen multzo bat emon deutso liburutegiari.

Mendebaldek oparitu deutzan argitalpenetan Arratiako berbake-reari buruzko ikerketak dagoz, baita Arratiako ikertzaileak egindako argitalpenak be.

Gimnasioa be auzolanean

Dimako herritarrek behin liburutegia martxan ipinita, gimnasioa ipini gura dabe martxan eta hau be auzolanean egingo dabe. Holan, lokal bat dabiz prestetan gimnasioa ipinteko, hileko kuota bat ordainduta eta ordutegi baten barruan erabili ahal izango dana. Etxean gimnasio aparaturen bat geldirik euki ezker, gimnasiorako gustura hartuko dabela dinoe lanean dabizanak.

ARRATIA

Caritasek hogetabi familiari egin eutsan harrerea igaz**Erredakzioa**

Caritas Arratiak 2012ko datuak emon dauz jakitera eta honeen arabera, Caritasek igaz 22 familiari egin eutsan harrerea; egoera administratiboa normalizaua ez daukienai gehien bat. Ohiko laguntzak oinarizko preminetarako laguntza ekonomikoa, jatekoak erosteko

txartela, gizarte larrialdietarako laguntza aurrerapena eta garraiorako diru laguntza dira. Arratian 12-15 boluntario dagoz parrokia guztietan Caritasen ordezkari.

Hiru arlotan egin eban lan Caritasek igaz: harreran, sensibilazinoan eta bidezko merkataritzan. Harrera zerbitzuan lagundutakoen jatorria, % 9 Espainia izan zan, %

27 Senegal eta besteak Argelia, Maroko eta beste herrialde batzuk.

Administrazioa eta Caritas

"Aurten laguntza eskabideak gora egin arren, laguntza ekonomikoa murriztu beharra egon da, baldintzak estutu dira eta baliabideak ez dabe gora egin neurri berean. Aitatzekoa da Arratiako Udalen Mankomunitateak eta Arantzazuko Udalak Caritasen bidea aukeratu dabela legeak lagutzen ez dituan personak bertan behera ez ixteko. Administrazioa heltzean ez dan leku eta jentearengana heltzean da alkarte hau" Arratiako Eleizako iturrien arabera.

LEMOA

Preso bat bisitetatik etozela istripua izan dabe lemoaztar bik**Erredakzioa**

Jabi Martinez preso bisitetatik bueltan etozela istripua izan eben Madrilan Idoia Pujana zinegotziak eta beste lemoaztar batek. Hori dala eta, Lemoako Udal Gobernuak euskal presoen dispersinoagaz amaituteko exigitu deutse Madril eta Pariseko gobernuai martian egindako adierazpen instituzional baten.

Istripua txingorren eraginez izan zan eta Martinezen lagunak ez eben zauri larrik izan. Bildu Lemoak jakitera emon dauanaren ara-

bera, Jabi Martinez 2010ean libre geratu behar zan baina 197/2006 doktrinearen aplikazioa dala eta, zigorra 2022 urtera arte luzatu jako.

Hau dala eta konzentrazioa egin zan Lemoan martiaren 27an.

**Oparitu BEGITU-lagun!**

* Deitu 649 979 115 telefonora

Egizu zure laguna BEGITUREN harpidedun eta otzara bete kultura oparitutako deutzazu.

- 6 liburu: Arratia Inguruko Hiztegia, Ortozik, Ametz, Peru Tximaluze, Haizea aurpegian eta Arratia aldeko kanta eta bertso zaharrak
- Arratia, Ubide eta Zeberiko argazki zaharren postal bildumea
- Luis Iruarizaga Abesbatzaren 25. urtemugako CDa

HAU DANAU JASOKO DAU BEGITU-LAGUN BARRIAK OPARI DOTORE HAU EGIN EZKERO

35€, 55€
edo 75
Euroren truke



ARRATIA

Bere webgunean publizitatea, eta bideoa egiteko be aukerea emongo dau BEGITUK

BEGITUK bere publizitate eskeintza esparru barrietara zabaldu dau eta gaurko gizarteak erabilten dituan tresna, baliabide eta euskarri barriak be kontuan hartu ditu.

Erredakzioa

Holan, interneteko webgunean banerra ipinteko edo promozino bideo bat eskegiteko aukerea eskeintzen dau BEGITUK. Publizitatea euskarri bat baino gehiagotan egin ezker, deskontua izango dau iragarleak.

Hiru euskarri erabili daitezke publizitaderako. Orain arte moduan, lehenengo euskarria papela da: BEGITU hamabostekaria: 6.600 aleko tiradea dauka eta 22 zenbaki ateratzen dira urtean. Arratia, Ubidea eta Zeberioko etxe guztietan bananduten da doban.

Orain, barrikuntza moduan, webgunean publizitatea egitea badago. Formato desbardinak dagoz (banerra, botoia...) eta 7 egun, 15 egun edo hilabeterako kontratau daitezke, sano prezio lehiakorretan. Beste aukera bat, komertzioaren publizitate-bideoa egitea da. Bideoa webgunean ipintez gainera, kontratatzaileari emongo jako, erakuslehoian edo ipinteko.

Deskontuak

Publizitatea euskarri bitan -hau

da, webgunean eta papelezko edizinoan; webgunean eta bideoa, edo papelezko edizinoan eta bideoa- eta webgunean gitixienez 250 euroko gastua egin ezker, %10eko deskontua

aplikauko jako prezioari. Deskonturik handiena, dana dala, hiru euskarriak -webgunea, bideoa eta papelezko edizinoak- kontratatetan dabenai egingo jakie: % 20.

www.begitu.org

web	bideoa
Banner (253 x 136px) (265mm x 48mm) € 7 egun 45 15 egun 80 Hilabete 140	20 segunduko bideoa 170€ 30 segunduko bideoa 200€ 40 segunduko bideoa 230€
Robapaginas (229 x 211px) (80mm x 75mm) € 7 egun 40 15 egun 75 Hilabete 135	* Seta honen BEZa gaitu behar jakin. * Bideoak inbi eta multzoak ukituta egingo dira.
Botoia (249 x 90px) (80mm x 32mm) € 7 egun 25 15 egun 40 Hilabete 75	* Beste aukerarik gure badituz, kontsultu gaitu. * Kontsultu beste aukerak.

Zure komertzio bideoa batzuek ezagutzen gure badituz, gure egingo deutzazu bideoa. Bideoa zuri emongo jakizu eta, gainera, gure webgunean be edagiko dogu. Si quieres dar a conocer tu comercio a través de un vídeo, nosotros nos encargamos de realizarlo. Te entregaremos el vídeo y además, lo colgaremos en nuestra página web.

ZEBERIO

Aurrekontu murrizagoak aurten

Erredakzioa

Martiaren 26an 2013ko aurrekontuak onartu ziran Zeberion Bilduren aldeko botoakaz eta EAJ-PNVren abstentzioagaz. Aurtengo aurrekontua, 1.200.000 euro ingurukoa da, hau da, igaz baino 200.000 euro gitxiago aurreikusten dau diru sarreretan eta horretara egokitu behar izan da.

"Zeberion be egoera ez da bape erreza, aurtengo aurrekontuetan igaz baino 200.000 € gitxiago izango doguz sarreretan, Udalkutxaren jeitsiera dala-eta, eta eraikuntzaren jardueraren jeitsiera dala-eta. Dana dala, ahalegin berezi bat egingo dogu herriko eragileak, jubiladuak, kultur taldeak, guraso alkarteak eta euskera ikastaroak beste batzuen artean, orain arte hartu dabezan diru la-

guntzak hartzean jarraitu dagien. Nabarmenezkoa be bada, langileen salerosketearen ahalmenaren galereari aurre egiteko osagarri berezi bat sortu dala" azaldu deutso BEGITURI Ana Belen Alberdi Zebe-



Zeberioko udaletxea.

rioko alkateak.

Inbersinoak horretarako diru laguntzak lortzean badira egingo dira. Dana dala "aurreikusita dago auzo bide batzuen konponketea, Uriondo, Ereñotza eta Argiñaokoak, hain zuzen be; bere momentuan egin barik geratu ziran saneamentu batzuk egitea, kanpoko argizterriak aldatzea eta udal liburutegia udaletxeke 2. solairuan egokitzea".

LEMOA



Cementos Lemona.

Negoiazinoa aurrera doa Cementos Lemonan

Erredakzioa

Cementos Lemonako gatazkea laster konpontzeko moduan egon leiteke, Eusko Jaurlaritzaren bitartez egindako negoziazio gogor eta luzeen ostean. Martiaren 26an eta 27n, batzartu ziran Cementoseko beharginen ELA eta LAB sindikatuetakako ordezkariak, enpresea eta Xabier Losantos Eusko Jaurlaritzako Lan Zuzen-

darria. "Negoziazinoak sano gogorak dira eta ondino akordioak ez dogu lotu. Horregaitik momentuz greban jarraituten dogu" azaldu eutsan BEGITURI Jabi Amorrortu enpresa batzordekoak. Dana dala, negoziazioak aurrera doazela eta ia 200 eguneko burrukearen ostean, berandu baino lehen akordioa lortuko dabela uste dabe beharginak.

ZEBERIO

Absolbidu egin dabe Xabier Aierdi

Erredakzioa

Xabier Aierdi zeberioztarra eta Enrike Antolin EHUko irakasleak absolbidu egin ditu Bilboko epaitegiak. Ikasle deportauai eskolak



Xabier Aierdi.

emoteagaitik epaitu ditue prebarikazino akusazinopean, baina eskolak emotean ez ebela prebarikau ondorioztatu dau epaileak eta absolbidu egin dauz irakasle biak. Zeberioko Udalak akusazinoa eta epaiketea injustutzat jota, Aierdiri alkartasuna adierazoten eutsala jakinarazo eban adierazpen instituzional baten bidez.

Berriak Aierdiri egindako alkarriketa baten adierazpenen arabera, aspalditik datorren unibersidadearen kontrako auzi baten azken ahalegina izan da epaiketa hau. Hasikera baten presoakaz tutore lanak egitegaitik 36 lagun inputau eta ehunka espediente akademiko zabaldu zituen. Horreek danak artxibatu egin zituen, Aierdi eta Antolinenak izan ezik, deportauen kasuak argitu barik geratu ziralako.

KORRIKA 18

Lekukoa Arratian

BEGITUK Arratiako ibilbide osoan lagundu eutsan Korrikari furgonetan. Bertatik ehundaka argazki atera genduzan, arratiarrak euskerearen jai honetan erakutsi eben partaidetzearen lekuko. Sei orrialdeko argazki-erreportajea dakargu oraingoan, egun horretan bizi izandako giroaren ispilu izan gura dauana.


Erredakzinoa



Ubideko herria.



Zeanuriko Sortu.



Igorreko Sortu.


KORRIKA 18




Ubideko herria.




Ernai.



Areatzako Sortu.




Zeanuriko Eskolea eta Guraso Elkartea.



Bediako Sortu.



Menditik Desertura.



Lemoako Sortu.

Zugaitik BEGITUTen dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com

Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre

Tfnoa: 94 631 80 04

ASESORIA
Gorbeialde

Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Kendall Languages

- A, B eta C perfil linguistikoen lorpene Trinity College London eta Oxford Universityren zentru ofiziala, azterketak zentruan bertan eginaz
- Cambridge, EOI, First Certificate... azterketetarako prestaketea

Elxalde 4 behea · 48.140 Igorre (Bizkaia) · 94 657 73 48 · www.kendall-languages.com



Zastaparrak Aisi Taldea.



Zeanuriko gazteak.



Basozainak.



Larregi eta Exaixu musika taldeak.



Zeanuriko Udala.



Gorbeia Suzien.



Lurrarinek eta Harriketarrak Gazte Asanbladak.




Zulaibar Lanbide Ikastegia.



Peña Athletic Gorbeako Gurutzea.



Fraka-zuri Gazte Asanbladea.



Areatzako Kultur Kirol Batzordeak egin eban Ganoraz Euskera Taldearen kilometroa.






Areatzako Eskolako Guraso Elkarte.



Areatzako Udala.




Gorosti.



Artea Kultur Kirol eta Euskera Taldea.



Indar.



Trukutze Txalaparta Taldea.



Aldatuz Plataformea.



Arantzazuko Bildu.



Arteako Eskolako Guraso Elkarte.



Arteako Udala.



Arginatx Mendi Taldea.



Elizportaleko Gazte Asanbladea.




Institutua.



Luis Iruarrizaga Abesbatza.



Aek-ko ikasleak.



Institutuko Guraso Elkarteak.




Dimako Eskolea eta Guraso Elkarteak.



Ekin.




Dimako Sortu.



Dimako Udala.



Arantzazuko Udala.



Dimako EAJ-PNV.



Igitie.



Luis Prieto Lagunartea.



Txumuluxueta Esku Pelota Elkarteak.



Gaztebarri Jantza Taldea.



Arratiko Zekorrak Rugby Taldea.




Igorreko Udala.



Dimako Gaztetxea.



Batz.




Ormazabal.



Dimako Bertso Eskolea.



Igorreko Eskolea eta Guraso Elkarte.



Arratiako Bertso Eskolea.



Andraizea.




Araluce.



Axular Kultur Elkarte.



Arantzarte Jantza Taldea.



Herrira.



Motxogan Kultur Elkartea.



Durundibarri Jantza Taldea.



Lemoako Abesbatza.



Zertu Kultur Elkartea.




Lemoa Txirindulari Elkartea.




Ibaigane.



Bediako Udala.



Cementos Lemonako LAB.



Arratiako Musika Eskolea.



Lemoako Udala.



Harrobi Futbol Kluba.



Lemoako Eskolea.



Lemoako Esku Pelota Taldea.



Ganzabal Mendi Taldea.

HERRI KIROLAK

Herri kirol desafioa Dima eta Zeanuri artean

Erredakzioa

Herri bakotxean auzune arteko lehiaketak egin ondoren, herri bien arteko desafioa egitea interesgarri jo eben bai Diman eta bai Zeanurin, eta lanean hasi ziran horreetan parte hartu eban herrien artekoa antolatuteko. Holan, apirilaren 13an Diman eta maiatzaren 4an Zeanurin neur-tuko dira herri biak.

Probak, ingudea, txingak, zakua, txokorrak, trontzea, aizkorea eta sokatirea dira. Talde bakotxean hamalau-hamabost lagun inguru dagoz "eta proba guztietan, aizkoran izan ezik, andra batek eta gizon batek hartuko dabe parte

talde bakotxean. Sokatiran taldea mistoa izango da, lau mutil eta lau neska" azaldu deutso BEGITURI Irati Astondoa Zeanurikoak.

Herrien arteko hainbeste probako desafioa egiten dan lehenengo aldia da eta ez dabe deskartau beste herrietara zabaltzea arrentzuan, baina "lehenengo ikusiko dogu zelan urteten dan. Idea polita da. Hau prestatu bitartean, ume txikerrak frontoira etorri eta hasi dira herri kiroletan. Herri kirola sustatu gura dogu desafio honeekaz" dino Ruben Gumuzio Dimakoak.

Herri kirolak bultzatzeaz gainera, antolatzailak herri bien arteko hartu-emonak eta loturea

sendotu gura dabez.

Jai-giroa

Lehenengo neurketea apirilaren 13an, arrastiko bost eta erdie-

tan izango da Dimako frontoian. Desafioaren ondoren triki-poteoa eta afaria eukiko dabe parte-hartzaileak alkarregaz eta jai-giroan amaituteko eguna.



Diman egin zan auzo eta taldeen arteko txapelketea.

Argazkia: Berna Gomez.

FUTBOLA

Andrak zazpigarren, gizonak hamaikagarren

Erredakzioa

Azkenengo partidua galdu egin dau Arratiako andren taldeak (1-4) Barakaldo CFren kontra. Saikapenean zazpigarrenak dira orain 38 puntu-gaz. Hurrengo partidua Tolosaren kontra jokatuko dabe.

Gizonak

Gizonak osteran 27. jardunaldian, Union Sport San Vicenteren kontrako partidua bardindu egin eben husna. Holan 27 partidutik 9 irabazi, 9 bardindu eta 9 galdu ditue arratiarrak.

Hilaren 7an Aranguren taldearen kontra neurtuko dira.

RALLYSPRINT

Zeberio-Artea Lurgaineko II. Rallysprinta

Erredakzioa

Arratiako Gorbeialde Racing alkarteak Durangalde Racing-en laguntzeagaz antolatuta, apirilaren 7an, arrastiko ordu bietatik aurrera Zeberio-Artea Lur-gaineko II. Rallysprinta izango da. Euskal Herrian egiten dan lur-gaineko rallysprint bakarretakoa da, eta antolakuntzeak 30 bat parte-hartzaile espero dauz. Ibilbidearen barri ez da emongo bezperara arte. Hau da, hilaren 6an Euskadiko Automobilismoa Federazioaren webgunean emongo da jakitera.

Bigarren urtea da Zeberio-Artea lur-gaineko rallysprinta egiten dana eta aurten Euskadi, Nafarroa eta Errioxako automobilismo federazioak sortutako txapelketearen parte izango da. "Pozik

gagoz Federazioak ados ipini eta lur-gaineko karrerak txapelketa baten sartzea lortu dogulako" azaldu deutso BEGITURI Iker Ercilla antolatzailak.



MENDIA

Txikon Nuptse eta Lhotserako bidean da

Erredakzioa

Himalayan dagozan Lhotse eta Nuptse mendietako tontorrek zapaltzeko helburuagaz, Everestarantz abiatu ziran Txikon eta bere espedizionkideak martiaren 26an. Lemoaztarrak, Jose Carlos Tamayo eta Juanra Madariaga izango ditu kordako lagun.

Txikonek bere hamargarren zortzimilakoa egin gura dau orangoan. Lhotse (8.516 metro), munduko laugarren mendirik altuena da. Beste erronka bat be badauka espedizino honek eta gitxitan zapaldua izan dan Nuptse (7.861 metro) "beldurgarri bezain ederra" igotea da.

Lemoako mendizalearen arabera "Lhotse-Nuptsek bikote perfektua osotuten dabe: esan daikegu Lhotse eskalada klasikoa dala, eta Nuptse barriz, estilo al-



Alex Txikon aurkezpenaren egunean.

pinokoa dala, erronka abangoar-distagoa da, konpromiso handiagokoa" esan eban Txikonek espedizinoaren aurkezpenean.

Txikonek, Madariagak eta Tamayok Nuptseri ekingo deusie lehenengotik, gero Lhotse igoteko.

indar
instalazio elektrikoak

Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4
48142 ARTEA - BIZKAIA
t. 94 655 47 19
indarsi@indarsi.es • www.indarsi.es

MERKA LABELA-HARATEGIA

Etxe-produsioak

- Teorizok
- Ololesteak
- Beshantzak
- Salfitruak
- Ranzburgesak

Arratiako produsioak

- Beserrila okela
- Getxiak
- Beserrila arraitzak
- Txanikak
- Harriak
- Geroika fruta eta barazkiak

Herritarrei buruzko informazioa: Agurte 21, 94 673 41 39, www.merkalabela-harategia.com

Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

www.begitu.org

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN

ZUZENBIDE

ZERGA ETA DERU KONTRATUAN
ONDASUN HIGIEZINEN
ASIGURUELAN

Beldin Arana, 3-3. floor, 48 673 71 41 - Fax: 94 673 71 41 - 48142 (GOTIPE)

ekin s.l.
CONSTRUCCIONES

LAN PUBLIKOAK
INDUSKETAK
GARRAIOAK
UR SAREAK
SANEAMENTU SAREAK
BASERRI ETA BASOAK BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK

Iturriotz barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 Fax: 94 673 95 25
e-posta: obras@construccioneseekin.com

Pinturas Anatia

Javi Morato
Tel. 628 443 992

BOLA JOKOA

Arratiako lau talde dagoz Komarkalean

Erredakzioa

2013ko bola denporaldia martian hasi zan. Hiru txapelketa jokatuko dira bertan: Komarkala, Bizkaiko Txapelketa eta Euskadiko Txapelketa. Komarkalean Arratiako lau taldek hartzean dabe parte: Artaun (Dima); Lemoa, Oba (Dima) eta San Kristobal (Igorre). Txapelketetan gizon eta andrazko kategoriak egon arren, Arratiak gizonekoetan bakarrik daukaz taldeak.

Komarkala martiaren 2an hasi zan eta maiatzaren 25ean amaituko da. Zapatuetan jokatuten da lauretatik aurrera. "Faboritoak Zornotzako San Migel eta Gisetza dira. Bi edo hiru urte pasau beharko dira Arratiako taldeak faborito izateko, baina gero eta hobeto botaten dogu. Gu (Lemoa) 2003an hasi ginan, eta harrezkerotik asko hobetu dogu. Saikapenaren erdialdean dagoz Arratiako taldeak. Horreetatik ondoen doana Lemoa da" dino Imanol Artabe Lemoako Bolo Taldeko presidentea.

Bizkaiko banakako txapelketa, barriz, maiatzaren 4 eta 5ean jokatuko da Zornotzako San Bartolome bolalekuan eta binakakoa hurrengo astegiaren leku berean. Euskadiko Txapelketa bagilaren 8an izango da Tertangan (Araba).

Botaldien egutegia

Orain arte lau saio egin dira: martiaren 2an, Epalzan; 9an, Gisetzan; 16an Lemoan eta 23an San Pedron. Hurrengo botaldiak, barriz, honeek dira: Apirilaren 6an San Migelen; apirilaren 13an Artaunen (Dima); hilaren 20an Bernagoi-



Lemoako bolalekua.

tian; hilaren 27an Gure Kirolak-en; maiatzaren 18an Oban (Dima) eta maiatzaren 25ean San Bartolomen.

Taldeak eta bolalekuak

Arratiako auzune askotan bolalekuak egon badagozan arren (edo egon dira), ez dira asko bolalekua funtzionamentuan mantentzen egin dabenak eta bola talde bat daukienak. Berezia Dimako kasua, talde eta bolaleku bi daukaz-eta: Artaun eta Oba, hain zuzen be.

Bolalekua urteetan egon zan zarratuta Lemoan. "Inaugurau zanean lagun talde bat batu ginan eta bizitza emoten deusagu bolalekuari, Lemoako Udalaren laguntzaz" dino Artabek. San Kristobal Bolo Taldeak, barriz, ez dauka bolalekurik bere auzunean, eta bolariak Artaunen entrenetan dira, Artabek jakinarazo dauanaren arabera.

Gorabeherak gorabehera, joko tradizional honek badauka erreleboa Lemoakoaren ustetan, eta "azkenengo bi edo hiru urteotan jente gazteak osotutako taldeak hasi dira" dino.

ERRUGBIA

Denporaldia amaitu da Zekorrentzat

Ainhoa Duñabeitia

Aurtengo denporaldia amaitu dabe Zekorrek. Bigarren fasea jokatzen ibili dira, baina izan dabean emoitza txarrak dirala-eta, igoera faserako txartela galdu dabe. Hori dala eta aurtengo kategoria berebetean jarraituko dabe. Saikapeneko azken postuan amaitu dabe Zekorrek. Hamabi neurketa izan dira guztira. Horreetatik 10 galdu eta 2 irabazi dabez.

Martiaren 23an, jokatu eben azken norgehiagokea. Etxetik kanpo neurtu ziran, Iruña RC taldearen aurka. Partidu txarra jokatu eben, etxeok 9 entsegu lortu ebezan eta gureak bat be ez. Azken emoitzea, Iruña RC 55-Arratiko Zekorrek 0.

Gazteak bigarrenak dira sailkapenean

Zekortxuak aldiz, ederto dabil. Ondino lau partidu geratzen jakie denporaldia amaituteko baina denporaldi ederra egiten dabil. Izan be, saikapenaren 2. postuan dagoz lehenengokoagaz bardin-duta. Sei partidu jokatu dabez,

horreetatik 4 irabazi eta 2 galduz.

Martiaren 23an izan eben norgehiagokea Inters. Irabia BR Taldearen aurka. San Txismen izan eben neurketea. Partidu polita gatzetoak egin ebena, sei entsegu lortu ebezan. Azken emoitzea Arratiko Zekorrek RT 34-Inters. Irabia BRT 8.



Zekorrek denporaldia amaitu daben arren Zekortxuak 4 partidu geratzen jakiez.

TRINKETEA

Lemoa txapeldun Bizkaiko Trinkete Txapelketan

Erredakzioa

Martiaren 22an jokatu ziran Bizkaiko eskuz zein paletako trinkete txapelketak. Eskuz binakakoan, finalean derbi arratiarra jokatu zan: Lemoa Dimako Txumuluxuetaren kontra. Lemoakoak izan ziran ga-raile (40-37) txapela lortuz.

Lemoako Zilaurren eta Bilbao



Arza, Zilaurren, Bilbao eta Ziarrusta.

errez ibili ziran lehenengo zatian, baina azken txanpan Ziarrusta eta Arza Txumuluxuetakoak estu har-

tu zituen Lemoakoak. Dana dala, Lemoa suertau zan irabazle pronostikoak betez.

HERRIKO BENTA
HOSTAL
HERRIKO PLAZA
48142 ARTEA (Bizkaia)
Tel. 94 631 72 56

expert  **ARRATIA**
E-posta: expertarratia@cordevi.com
Leh. Agirre, 16 Tel. 94 673 60 55
48140 IGORRE Fax 94 631 52 89

bbk 

Gure Ikastetxeak
Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urteik 18ra. Eskalduna, kalitatekoa, herrikoa

Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 45 Faxa: 94 673 90 45 Artea

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

I. Zubizarreta HI
Tel.: 94 673 40 22 Faxa: 94 673 40 22 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

J.B. Eguskiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Mour hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoak, Hezkuntza zikloak

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

Bizkaifisios SLk bi zentro ditu
Fisioterapia Zentroa Igorre
Elexalde 4
Telefonoa 94 631 55 08

Andra Mari Klinika
Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1 Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64

www.bizkaifisios.com

LIBURUA

**Imanol Atutxak
Historias de Patxi Poteo
komikia
kaleratu dau****Erredakzioa**

Imanol Olatu ezizenagaz sinatzen dauan Imanol Atutxa zeanuriztarra ezaguna da BEGITUREN irakurleentzat. Izan be, agerkari honetan agertzen diran denpora-pasak berak sortutakoak dira. Txitean-pitean

baita komikiak be. Orain komiki-liburu bat kaleratu dau.

Personajeak eskeletoak dira

Patxi eta Pantxi dira personaje nagusiak. "Hil ostean be lehengo ohiturakaz jarraituten dabe. Ardaoa gus-tetan jako asko Patxiri. Gaztelaniaz dago baina euskaldun batek egingo leuken gaztelanian. Umorezkoa da" kontau deutso BEGITURI egileak.

Liburu honetan agertzen diran tira guztiak libururako eginda dagoz. "Personaje bat etorri jatan burura eta istorioak marrazten hasi nintzan. Pentsau neban 100 inguru egindakoan argitaratuko nebazala".

Edizioa egilearena da. *Historias de Patxi poteo* www.pasionporloslibros.

es webgunean eta Arratiako hainbat establezimintutan erosi daiteke.

**Liburuaren azala.**

ARRATIAKO KORUA

**Arratiako
Koruak lau
mila euro
Caritasentzat****Erredakzioa**

Martiaren 25ean, Jabi Arbe, Juan Carlos Bernaola eta Ana Sierrasumaga Arratiako Koruko juntakoak Carlos Bargas Bizkaiko Caritaseko zuzendariagaz batu ziran, Agate Deunaren bezperan koplak kantetan jasotako dirua emoteko. Koruak 4.000 euro batu ditu aurren. "Atzenengo urteotan, kanpora

**Arratiako Korukoak Caritaseko zuzendariagaz.**

bialdu izan dogu dirua, baina aurren, ikusita hemen be beharizan

handia dagoala, Caritaseri emotea ebatzi dogu" azaldu eban Arbek.

KULTUR ETA KIROL BATZORDEA

Aita Añibarro Kultur Elkarte eta Lamino Kirol Kluba sortu dira**Bazkide eguna.****Erredakzioa**

Areatzako Kultur eta Kirol Batzordeak kultur elkarte eta kirol kluba aurkeztu eta 160 bazkide egin ditu. Añibarro Kultur Elkarte eta Lamino Kirol Klubaren helburua "adin guztietarako kultur eta kirol programazio bat egitea da, erakundeetatik eskeintzen ez diran esparruak indartuko dauana".

Hemendik eta bagilerarteko alkarre bien programazioa be aurkeztu eban Areatzako Kultur eta Kirol Batzordekoak. Mendi urtekerak, pelota txapelketak, orientazioa, herri kirolak, patinaje eta xake tailerrak, berbaldiak eta erakusketak eskeintzen ditu Lamino Kirol Klubak; arte eta zientzia berbaldiak, zineforuma eta bookcrossing, barriz, Añibarro Kultur Elkarteak.

Finantziarioa

Ekintza honeen guztionen finantziarioa lortzeako, lau diru iturri aurreikusitak be bazkidekoak: subentzinoak, bazkideetza, babesleak eta herri jaia, hain zuzen be.

Bazkideetza jagokonean, 20 euro urtean izango da karnet arrunta, 45 familiarra eta 26 urte baino gitiago dituenak eta jubila-duak 15 euro urtean izango dabe kuotizat.

Udalari eta Foru Aldundiari eskatuko jakiez diru-laguntzak eta herriko komertzio, taberna eta enpresari be bai.

Beste alkarrekatik lankidetzeari

Areatzako Kultur eta Kirol Batzordeak beste alkarrekatik lan egiteko asmoa adierazi eban. Holan, batzordean falta diran alkarrekatik erakarri gura ditue, eta herriko alkarrekatik hiru hilabeteko batzar bi egin: bata programea aurkeztuteko eta bigarrena balorazioa egin eta idea barriak jasoteko. Gainera alkarrekatik euren ekintzetan lagunduteko lan taldea eskeini gura deutsee.

Inguruko herrietako kirol eta kultur alkarrekatik be egin gura dabe behar, AKKT eta Joko Alai-gaz, berbarako, "Arratiako alkarrekatik artean hartu-emonak indartuteko".

**Instalazio industrialak · Mantenimendu industrialak · Tresneria eta kontrola Merkataritza
establezimenduen instalazioak · Etxebizitzaren erreformak edo berrikuntzak · Antena instalazioak
Mantenimendua · TDT · Telekomunikazioak · Herriko argiak · Potentziadun koadroak**



Arratian kultura bultzatzen

indars
instalazio elektrikoak

Bildosola industria gunea, pab. E-3/4 · 48.142 Artea (Bizkaia)
Tel.: 94 655 47 19 · Fax-a: 94 404 06 70 · E-posta: indarsl@indarsl.es

LEHIAKETEAK

Euskera Planerako logo lehiaketea Lemoan

Erredakzioa

Lemoako Udalak Euskararen Plan Estrategikoa 2013-2017 prozesuaren irudia diseinetako eta prozesuari izena emateko lehiaketea antolatu dau. Partaideak gehienez diseinu bi aurkeztu ahal izango ditue hilaren 30era arte, Udal Arreta Zerbitzuan (gutun-azal baten sartutako CD baten) edo posta elektronikoz euskera@lemoa.net-era, mezua gaitan "logotipo lehiaketa" ipinita.

Diseinua originala izango da eta prozesuaren izaera islatuko dau.

Izena edo leloak Lemoa berbea izan behar dau, eta izena eta irudia, biak batera aurkeztuko dira dokumentu berean, bata bestearen osagarri izanda, euskarri digitalean. Epaimahaiaren ebatzia herriko webgunean eta aldizkarian zabalduko da maiatzean.



OMENALDIA

Jose Ignacio Lekueri omenaldia Ubiden

Erredakzioa

Bere heriotzearen urteurrena beteta, martiaren 17an EAJ-PNV alderdiak omenaldia egin eutsan Jose Ignacio Lekue "Txistu"ri. Legegintzaldi baten Ubideko alkatea izan zan Lekue eta urte askoan Ubideko EAJ-PNVko presidentea.

Omenaldian, omenduaren andrea eta alaba be egin ziran.

IKASTAROAK

Ikastaroak Igorren

Erredakzioa

Ikasturteko atzenengo hiruhilabeteako Kultur Etxeko ikastaroetan parte hartzeako aukera zabalik dago. Apiletik bagilera izango dira gitxienez sei personak izena emon ezker. Ikastarook, Tai Chi, Jantza afrikarrak, Literatura txokoa, Akrobazia aereoak, Gazteentzako laburmetraje ikastaroa, Zeramika, Argazkigintza eta Photoshop dira. Gazteentzako laburmetraje ikastaroa doban da eta besteak 30 eta 79,50 euro arteko prezioak

daukiez. Kultur Etxeko bazkideak deskontuak izango dabez.

Kirol eskeintzea be egiten dau Igorreko Udalak eta interesdunak izena emon daikie kiroldegian Aerobic, 3. adineko gimnasia, Areto jantzak, Patinak, Jantza garaikidea, Igeriketa, Pilates edo Spinning praktiketako.



Akrobazia tailerra.

Bizi, goza eta subertea Kontxi

Dimako Eskolea

Gaur 2013ko martiaren 22a da, egunero bezala gauak egun-sentiar emon deutso argia.

Argiak, bizitzak halaxe, forma eta desioak marrazten ditu gure azalean.

Lasai Kontxi! Nerbioak sabelean edo belaunetan sortzean daben ondoeza trantze laburtxo bat soilik izaten da-eta, osteko sentimentua, aldiz, itsatsita gelditzen jaku.

Baina gaur, une batez behin-

tzat, ez goaz higadura, emoitza, edo aditzaren kokapenez berba egitera.

Hemen eta orain, ziur, emozino eta sentimentuak azalerraten doguzala gorputzean, geure ispiluan, aurrez aurrekoari begira.

Bitartean, eguzkiak gure ibilbidea bezalatu, gure zentzumenetan bizipenak itxitako aztarnak, gogo zein gurariak lurrinduko jakuz azal poroetatik.

Laztanten itxi gara sari, haserrearen keak be atera jakuz

berben garretatik.

Danetik gertatzen jakula begibistakoa da, baita isilune hau gauza ugari apurtu ahal dabela jakinik, egia da sentidu edo sentiduten dan zeozer dagoala hemeko airean, gure artean.

Amaibako mendikateetan legez, nahiz distantziak izugarriak izan, gaur gure ekosistema honetako tenperatura gozotasunez, sutan sentiduten dogu.

Itxurak alde batera itxita benetan uste eta maite dogunaren alde egiteak dauan garrantziak jabetzen gara honelakoetan eta.

Heldu da egun berezi hau, beste bat zuretzako eta geure-

tzako be, bizitzaren erritmoa labantzen, elikatzen deuskuna.

Atzeraka usainduz, oharkabean une asko, beste asko atseden hartzeako itzaltxo baten bila aritutakoak, asko errutinan... baina asko baita be laguntzaren irrian gozotasunez ito eta dastatuak.

Hauxe bizitzaren magia, egin eginaren gaian... eta ez soilik egin, isilean hartua eta emona.

Eta ostean, bizitza! Alkarri emonaz korrika doan lekukoa.

Horixe opa eta desio deusuguna! Bizi, goza eta subertea! Bi mosu!

Lanerako gogo ona baldin badago goizean doinu ederra entzuten da beti eskola ertzean umea sentitan bada gelan kasi bere etxean irakasle finak dira lan guzti horren atzean Kontxi dana eman deuskuzu hain ibilbide luzean Artauneko otzara haxe barriz dator taxisean eta lorak jarri dira eskolako baratzean laster gordeko dauriez haur guztiek bihotzean.

Diman, 2.013ko martiaren 22an.

DUNBA

Korrika Diman



Dimako eskolakoak Korrikako kilometroa egiten.

Dimako eskolako ikasleak

Martiaren 21ean Korrika Dima zeharkatu eban, eguerdian. Oso polita izan zan, jente asko, alaitasuna, irribarreak, kantuak, partaidetza.

Eskolako kilometroan lekukoa ikasle bik eroan eban, 2. mailako Alexek eta 2 urteko gelako Eñautek.

Martiaren 21ean Korrika Gipuzkoatik ibili zan, Bergara, Oñati, Arrasate... eta Arabatik be bai Leintz-Gatzaga, Legutio... Bizkaian Ubidetik sartu zan eta Arratia osoa zeharkatu eban. Dimara Igorretik etorri zan eta barriro bueltau zan Igorrera eta hemendik Lemoara, Zorrontzara... gelditu barik.

Korrikaren inguruan beste ekintza batzuk be egin dira Diman. Martiaren 15ean ipuin-kontalariak izan genduzan ludotekan eta pelota partiduak frontoian. Martiaren 16an herri-kirolak umeentzat, euskal jantzak eta Korrika bazkaria (250 personak hartu eban parte), gauean kontzertuak

izan ziran gaztetxean eta martxa, tipi-tapa, hurrengo goizerarte.

Korrika Euskal Herria osoa zeharkatzen dauan euskerearen aldeko maratoi erraldoia dogu.

Aurtengo korrika 18.a izan da eta bere leloa "Eman euskara elkarri". Euskerea euskal herritarrok alkarregaz biziteko hizkuntzea izan behar dalako, alkarri berba egiteko hizkuntzea, alkar entzutekoa eta alkar ulertzekoa.

Edizino honetan musikea Esne Beltza taldeak ipini dau eta abestia "Bagoaz" izan da.

Lehenengo Korrika 1980. urtean izan zan, Oñatin hasi eta Bilboraino joan zan bederatzi egunean.

Handik aurrera urte birik behin egiten da. Antolatzailea AEK (Alfabetatze Euskalduntze Koordinadora) da.

Aurten, martiaren 14tik 24ra egin da, Andoainetik Baionara. Milaka eta milaka personak laguntzeagaz. Ateratzen danetik amaitu arte, lekukoa eskutik eskura, herriz herri aldatzen joaten



da, baina martxea ez da inoz geldituten, ez gauez ezta egoera klimatologiko txarrakaitik be. Hunkigarria benetan!!!

Martxearen buruan, lekukoa daroan personea joaten da, eta atzean tropela, abestuz eta pankartak. Lekukoak mezu ezkutua daroa, Baionan irakurri zana.

Diman eta Arratia osoan hainbat ekitaldi burutu dira Korrikaren inguruan eta arrakasta handia izan dabe.

Oso polita eta hunkigarria izan da Korrika Dimako plazea zeharkatzen ikustea. Espero dogu hurrengoetan be, euskerea alkarri emonaz, barriro ikustea Korrika gure herrian.

AGENDEA

**APRILA
IGORRE**

Kultur Etxeko edo Kiroldegiko ikastaroetan izena emoteko epea zabalik.

LEMOA

Hilaren 5a arte, perkusino ikastaroa Elizondoko Kultur Gunean.

Hilaren 30era arte Euskera Planeko logo lehiaketea.

ZEBERIO

Aprilean Berbalagun proiektua martxan ipiniko da. Izena 7ra arte emon daiteke udallexean.

**APRILAK 2
BEDIA**

17:00etatik 19:00etara, hilaren 12ra arte, Bediako jaietan pala eta frontenisean parte hartzeako izen emotea liburutegian.

LEMOA

16:30ean, Haur eta Gazteen Liburuaren Nazinoarteko Eguna ospatuko da liburutegian: ginkana eta tailerrak.

19:00etan, Lemoa Txirindulari Elkarteak antolatuta, Eguzkiñe Intxauberren berbaldia "Entrenamentura egokitzapenak: txirindularitza eta triatloia". Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

**APRILAK 5
DIMA**

19:30ean, "Diman etxean gura doguz" errepresaliaduen aldeko konzentrazioa. Herrirak antolatuta.

**APRILAK 6
ARRATIA**

16:00etan, Eskualdeko 50. Bola Txapelketaren botaldia San Migelen.

IGORRE

22:00etan, zinea *Las sesiones* Lasarte Aretoan.

**APRILAK 7
IGORRE**

17:00etan, umeentzako zinea *Don Gato y su pandilla*. 19:30ean, zinea *Las sesiones*

Lasarte Aretoan.

LEMOA

19:00etan, Argia emonaldia *Atzerapauso handia* dokumentala Elizondoko Kultur Gunean.

ZEBERIO-ARTEA

14:00etan, Zeberio-Artea Lur-gaineko II. Rallysprinta. Gorbeialde Racing Alkartek antolatuta.

**APRILAK 8
IGORRE**

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Ganzabal Mendirik Mendi argazki erakusketea Kultur Etxean.

**APRILAK 11
AREATZA**

19:30ean, Inaki Elexperen berbaldia "Arte vasco en el siglo XIX" Udal Aretoan. Areatzako Kultur Kirok Batzordeak antolatuta.

**APRILAK 12
IGORRE**

21:00etan, kantu afaria San Kristobaleko txokoan Intxaurbizkar Kultur Elkarteak antolatuta. Prezioa: 20€. Txartelak Gau Lora eta Rugby Tabernan hilaren 9ra arte.

**APRILAK 13
AREATZA**

23:00etan Jabier Mañon umorista Bixer tabernan.

BEDIA

17:00etan, erromeria plazan. Baserritar jantzita.

DIMA

16:00etan, Eskualdeko 50. Bola Txapelketaren botaldia Artaunen.

17:30ean, Dima-Zeanuri herri kirol desafioa frontoian. Ostein triki-poteoa eta afaria.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta sagardotegira urtekera. Mendizorrotz (415 m).

**APRILAK 14
IGORRE**

17:00etan, umeentzako zinea *Los Croods*.

19:30ean, zinea *Bestias del sur salvaje* Lasarte Aretoan.



**berriak
10 urte**
zator gurekin
ospatzera

izan zaitez
berrialaguna
www.berria.info

berria
hamarnaka
kontatzeako gara

Amatek: **berria**
Laguntza: **hitza**

Berberiak: **IGORREKO UDALA**

Apirilak 13, Igorre

'Zertarako hegoak'
Metrokoadroka sormen laborategia

Arratsaldeko zortzietan
Lasarte aretoan

Sarrerak aurkez:
- Interneten: www.berria.info
- Igorren: Gau Lora tabernan
Sarrerak aburuetan bestak: Lasarte aretoan

Sarrera: 5 € berrialagun harpidedunentzat
eta berrialagunentzat. Galnerakoentzat: 10 €
Oharra: Harpidedun edo BERRIALAGUN bertsia erakustea ezinbestekoa izango da, eta txartel bakoitzarekin bi sarrera eskuratu ahal izango dira gehenez.

Zertarako Hegoak Berria egunkariaren 10. urteurrenean

Igorreko Kultur Etxean, apirilaren 13aren arrastiko 20:00etan, *Zertarako hegoak* antzezlan antzetzuko dau Metrokoadroka Sormen Laborategiak. Persona bakoitzak bere inguruan eragiteko daukan podereaz egiten dau berba antzezlan honek. Sarrerak eskuratzeko Berria egunkari webgunera, Gau Lora tabernara edo Igorreko Kultur Etxera jo daiteke. Sarreraren prezioa 10 eurokoa da, Berrialagunentzat edo harpidedunentzat, barriz, 5 eurokoa.

Bagilaren 21ean Berria egunkariak hamar urte betetzen ditu eta honen harira Euskal Herri osotik hainbat ikuskizun antolatu ditu, tartean Igorren ikusteko aukera izango dogun antzezlan. Urteurrena dala eta, "Hamarnaka kontatzeako gara" leloa aukeratu dabe. "Urteak kontau egiten diralako eta gertatuak be kontau egiten diralako".

IRAGARKI LABURRAK

**SALDU
SALGAI**

Garaje partzela salgai Lemoa erdigunean. 660 549 695 Bego.

SALGAI

Haretezeko arasa ederra salgai. 139zm zabal, 50 sakon, 193 altuera. Ikusgai dago Elexalde 10ean, Igorren. 800 €. 615 731 182.

AUTOA SALGAI

Fiat Punto 1.2 Dynamic 5 ateduna. 8 urte ditu. ITVa 2014ko bagilera arte pasauta, 672 762 066 (Gaizka).

AUTOA SALGAI

Toyota Landcruiser-a saltzean dot. Interesdunak 615 728 940 zenbakira deitu (Pili).

ETXEA SALGAI

Babes Ofizialeko pisua salgai Areatzan. Aukera ezin hobea Arratian biziteko. 3 logela, bainu bi, sukaldia ipinita, saloia, garagea eta trastelekua. Nerea 674 798 984.

**DANERIK
ETXEA ALOKATZEN DOGU**

Alokairuan dagoan pisu baten bila gabizan

neska arratiar bi gara. Alaitz eta Maider 652 722 698.

GARAJEA ALOKAIURAN

Garaje partzela bat alokatzen da Igorreko erdigunean. 659 395 911. Luis.

BIZIKLETEA GURA DOT

Errepidean ibilteko bizikletea gura dot. Zaharra eta merkea bada, barria eta karua baino hobeto. Idatzi: sautuolabarri@gmail.com helbidera.

GARAJEA ALOKAIURAN

Zeanuriko plaza-plazan dagoan garajea emongo neuke alokairuan. Interesdunak 94 631 70 46 telefonora deitu (iluntzetan).

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa**Zenbaki honetako saridunak:**

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Zertarako hegoak?* ikuskizunerako.

Maitane Campo (Areatza)
Mikel Urriz (Areatza)

2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Bestias del sur salvaje* filmarako.

Alaitz Olabarri (Igorre)
Beatriz Arza (Igorre)

g Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,


zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 11 urte eta ehundaka lagun.



DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

- 1.- Nagusitu. 2.- Azken letrea. Estarta.
- 3.- Nekatzea adierazoteko interjektzioa. Birritan, bular. Bokala. 4.- Testamentu Zaharrean azaltzen da, Noeren semea. Birritan, zurrumuru. 5.- Neurrian.
- 6.- Gizartean persona batengandik espero dan jokabide. Zein lekutan?
- 7.- Bat erromatar. Ospa, alde. Astatoa.
- 8.- Triste. Konsonantea. 9.- Tratulari.

GOITIK BEHERA

- 1.- Bildur-ikara. Konsonantea.
- 2.- Konsonantea. Itsasargi. Iridioa.
- 3.- Oinarrizko lau odol taldeetako bat. Edur-luma. 4.- Informatikan, oinarrizko informazio banako bitarra. Boroa. Taut. 5.- Ulermen. Sodioa. 6.- Zer. Sasoia. Letra bat.
- 7.- Erdiko bokala. Biloztu.




Topau zazpi gaixotasun desbardinaren izenak.



AKI MI KO

Zorrozkiilo



BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARDO

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA
Instalazio elektrikoak - Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoak
Juan de Ajuriagerra 1 Behea 48330 Lemoa
Tfnua-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

Dia %
PEDRO AUTOSERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

Los Chopos
neurria egindako armairuak
Avda. Los Chopos, 35 (Nagar) Tel.: 94 630 40 94
Esposizioa eta fabrika Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

ZEKUTZE
JATETXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83

INCOESA
Tel. 94 631 32 75
Faxa. 94 631 37 66
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia

AKEITEGIA
GAY IS LORA
IGORRE

KIRRU ILEAPANDEGIA
SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 beja - 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 631 92 00

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3, 3a 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia 609-79-40-54

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

Igorren ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Emilio Goitia banatzaile ofiziala
San Miguel
Ardoak Edariak
94 673 64 02 Industrialea E-3 Pabeloa (Igorre)

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ
Balmenak: A1, A, B1E, B
Lehendakari Agirre 31
Tfnua: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@euskalnet.net

L
ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskaraz zein erdaraz
Gorbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefona 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83
e-posta: urrozulu@euskalnet.net

MARTA UGARTE

"Hitzetik Hortzera ikusten genduan domekero bazkalostean, sagraua zan"

Jantzea, antzerkia eta bertsolaritza dira Marta Ugarteren afizinoak. 25 urte beteko dauz aurten eta Ingeles Filologia ikasitakoa da, Gasteizen. Erasmusean Amsterdamera joan zan Arteakoa. Honantzean ez da Arratian gelditu oster, Gasteizen bizi da orain. Arabako uriburuan biziteak txikitatik segidu izan dauan bertsoen munduan barrurago sartzeako aukerea emon deutso. Aurtengo Arabako Bertso txapelketan gai jartzaile beharretan ibili da Arteakoa. Obra baten gidoia hartu barri, antzerkian hasteko asmoa be badaukala kontau deutso BEGITURI.

Irati Urien

Momentu honetan zertan zabit?

Batetik, ingelesa emoten deutset ume eta gazteai, B1era arte. Eta bestetik, Integrazino Soziala ikasten nabil. Hortik aparte bertsoen munduan gai jartzaile lanetan sartuta nago eta antzerkian be beste apur bat.

Antzerkia?

Bai. Derrepentean etorri jata antzerkiarena. Lehengo baten igazko lankide bategaz egon nintzan berbetan eta antzerki taldea itxi behar ebala, obra bat preparentan egoazala eta ia egingo neban. Baietz esan neutsan. Gidoia irakurri eta gustau egin jatan.

Gai jartzailearen kontua nondik dator?

Txikitatik izan naz bertsozalea. Etxekoak saioetara joan izan naz beti. Hitzetik Hortzera ikusten genduan domekero bazkalostean, sagraua zan. Gero Araban be, tabernetan eta, bertso saio asko egiten dira, kuadrilako txapelketak egoten dira... orduan han be jarraitu izan dot apur bat. Kontua da euskera eta ingeles klaseak emoten hasi nintzala beharrean eta akademiako helbide elektronikora bertso alkar-teko korreoak be heltzean ziran. Izan be, bertso alkar-teak ez dau bertsolaritza bakarrik sustatuten, euskera eta kultura be bai. Egun baten bertso tailer baten gaineko email bat heldu jatan, gai jartzaile ikastaro bat egitera joiazala. Joatea ebatzi neban. Josu Goikoetxea eta Maialen Lujanbio etorri ziran.

Ikuslearen jarlekuan egotetik**oholtza gainean egotera pasau zinan. Zelan bizi zenduan?**

Sano polita izan da, oso esperientzia aberasgarria. Egia esan prozesua luzea izan da. Hogeta hamar bertsolarik hartu dabe parte baina jente asko gelditu da atzean. Kanporaketak urrian hasi ziran, orduantxe hasi ginan saio txikiak egiten. Gero finalerdiak etorri ziran, eta honeek prestetako gai jartzaileak batuten ginan astero. Bost finalerdi, hiru final laurden eta finala izan ziran. Azkenean saio asko dira eta lan talde bat osotu dogu. Danok inplikau gara pilo bat, danon proiektua izan da. Bertsolari zein epaileakaz be hartu-emon ona euki dogu, estua.

Zelan ikusten dozu Arabako bertso mundua?

Nik pentsetan dot belaunaldi barrira oso indartsu datorrela. Aurten hogeta hamaika urte egiten dauz bertso eskoleak Araban. Urte guzti horreek pasau dira gazte batzuk Abel Enbeitaren etxera joan eta bertso eskola bat sortuko zan itaunka agertu zirala. Kuantitatiboki sikan asko hasi dalakoan nago, eta kualitatiboki be salto handia emon dauala esan leike. Aurtengoan epaileak arabarrak izan dira danak. 30 bertsolari, 16 gai jartzaile eta 7 epaile egon gara. Asko

"Egin ahal izan neban**gauzarik****onena Gasteizera****joatea izan zan"**

da, parte hatze handia izan da eta danen inplikazioa handia.

Arabako kasua berezitzoa da. Ikasketak dirala eta lurralde desbardinatoko gazte osatuta dagoz bertso eskolak.

Holantxi da bai. Miren Amurizak adibidez han ikasten dau, Julio Soto be han egon zan... Eta holan beste horrenbeste gazte. Halanda be, txapelketan parte hartu dabena arabarrak dira. Eta arabarrak dinodanean arabar herrietakoak esan gura dot, eta ez Gasteizkoak bakarrik. Izan be emoten dau Arabako Txapelketan Gasteizkoak bakarrik dirala eta ez da holan, herri asko mobiduten dauz. Arabako herri gehienetan bertso eskola bat dago.

Bizkaiko bertsolaritza Arabakoa beste segiduten dozu?

Bizkaikoa bertsozale moduan segiduten dot. Kanpotik. Saioetara joaten naz, telebistan ikusten dot, baina desbardina da. Gasteizen hu-

rragotik bizi dot. Han bizi nazenez jarraipena desbardina da. Arabako Bertso Eskoleak daukan gauza on bat da gazteria asko mobiduten dauala, eta ez jaialdietara begira bakarrik. Eguazteno Bertsoatu Txapelketea dago, eta holan bertso saio bat entzuteko aukerea dago astean-astean. Eta laster hasiko da kuadrila arteko txapelketea, beste aukera bat. Plazea asko zabaldu dala pentsetan dot.

Eta zu bertsoan? Planteau dozu inoz?

Bertso eskolan ibili nintzan Igoerreko Institutuan, Karnele Angotiaz. Igor Menikagaz be ibiltzen ginan Arteako Eskolan eta joaten ginan igual Gernikara idatziko txapelketatara, baina hortik aurrera ezer be ez. Ez dot ikusten neure burua bat-batekoetan. Idatzikoak be kostata egiten dodaz. Niretzako bertsolariak jaungoikoa lez dira, milagro bat.



ALKIZABAL

www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net

Zabalik 07:00 - 19:00

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta-Lemoa bidea
Tel. 94 631 44 06. Faxa. 94 631 20 26
48330 Lemoa (Bizkaia)



Banataile ofiziala

















- Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
- Garraio zerbitzua.